



KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK
MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK



**Dokumentu honetan “Kontrataziorako Laguntzak
2018” programan sartzeko deialdiari buruzko
funtsezko informazioa jaso da**

**Dokumentu osoa webgune honetan irakurtzea
gomendatzen da:**

http://www.bilbao.eus/BilbaoEkintza/eu/index_eu.html

Zein entitatek eska dezakete?



- Tokiko enpresek: pertsona fisiko edo juridiko pribatuak, lan-zentroa eta jarduera ekonomikoa Bilboko udalerriaren lurralde-eremuan dutenak, eta honako betekizun hauek betetzen badituzte:
 - Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatea
 - Beste administrazio batetik edo erakunde publiko edo pribatuetatik diru-laguntzarik edo laguntzarik ez jasotzea eta jasota ez izana, deialdiaren kontratazioak formalizatzeko Gizarte Segurantzako hobariak kanpo utzita
 - Zigor- eta administrazio-zehapenik ez edukitzea

Nolakoak dira kontratuak?



- Kontratuen gutxienerako iraupena 3 hilabetekoa izango da eta edozein kontratazio-modalitatearen bitartez formalizatu ahalko da, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuen bidez izan ezik, ezta bitartekotasun- eta txanda-kontratuen bidez ere.
- Kontratuak lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izan ahalko dira, kontuan hartuta azken horiek gutxienez lanaldiaren % 50ekoak izan eta gutxienez 6 hilabete iraun beharko dutela.
- Diruz laguntzeko modukoak direla irizteko, kontratazioek enplegu-sorketa garbia ekarri beharko dute diruz lagunduko diren kontratuak egin zaizkien pertsona horiek lanean hasi aurreko 3 hilabeteetan enpresak zuen batez besteko plantillan.

Kontratazioak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera egin beharko dira sei hilabeterako diru-laguntza duten kontratuen kasuan, eta 2018ko apirilaren 1etik aurrera hiru hilabeterako diru-laguntza duten kontratuen kasuan, eta, kasu bakoitzean, hasierako mugaren eta gehienez 2019ko ekainaren 30era arteko aldia lagunduko da diruz. Ez da oztopo izango kontratazioak eskatutako mugaz haraindi luzatzea. Hala ere, ondorengo datei dagozkien kostuak inoiz ezin izango dira diruz lagundu.

Nor kontratatu daiteke?



- Ezinbesteko betekizunak: Langabetuak eta Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena eman dutenak

Langabezia daudenak: Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean eta Langile Autonomoen Araubidean langile gisa alta eman gabe egotea. Baldintza hori, gutxienez, kontratazioa hasi baino egun bat lehenago bete beharko da, eta kontratatutako edo kontratatuko den pertsonaren lanbidezaren bitartez baliozkotuko da.


Langabezia egoteak ez du esan nahi enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea: Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea eta Gizarte Segurantzako afiliazioaren egoera gauza ezberdinak dira. Baldintza hori, gutxienez, kontratazioa hasi baino egun bat lehenago bete beharko da. Ez da baliagarria beste autonomia erkidego batean enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egon.

Hurrengo ez da diruz lagunduko: Enpresa batek langile bera kontratatzea aurreko deialdietan diru-laguntza jaso badu.

Zein dira laguntzak?

- Gehienez ere, **3.000 euroko 36 laguntza**, lanaldi osoko 3 hilabeteko kontratuagatik
- Gehienez ere, **6.000 euroko 230 laguntza** 6 hilabeteko edo hortik gorako lanaldi osoko kontratuagatik
- Gehienez ere, **9.000 euroko 60 laguntza** 6 hilabeteko edo hortik gorako lanaldi osoko kontratuagatik, baldin eta gutxienez honako kolektibo honen baten barruan badaude:
 - ✓ DSBEren hartzaile titularrak edo onuradunak
 - ✓ 35 urtetik beherako pertsonak
 - ✓ Iraupen luzeko langabeak
 - ✓ 55 urtetik gorakoak
- **Lanaldi partzialeko 28 laguntzak 6 hilabeteko edo hortik gora iraupenarekin** Emandako diru-laguntza eta lanaldia proportzionalak izango dira, eta lanaldia ezin izango da % 50 baino txikiagoa izan.

Zenbateko ekonomikoak % 10ean handitu ahal izango dira kontratu horiek emakumeei eginez gero eta, lanbide horietan, gizonekin alderatuta % 50etik beherako presentzia badute.



Zer dokumentazio aurkeztu behar da?



- Laguntzen deialdian parte hartzeko eskabidea bete
- Erantzukizunpeko Adierazpena
- Enpresaren IFZren fotokopia
- Udalaren legezko ordezkariaren eta NANaren fotokopia eta ahalorde-eskritura
- Eratzeko eskrituren eta eratzeko kontratuaren fotokopia, behar den moduan e
- Gizarte Segurantzaren autonomoen araubideko altaren fotokopia edo Gizarte Segurantzako oraingo egoeraren ziurtagiria
- Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean dituztelako ziurtagiriak
- Ekonomia-jarduera Foru Ogasunean alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua (EJZ)



Noiz eta non eskatzen dira laguntzak?



Eskabideak aurkezteko epea 2018ko azaroaren 12an hasiko da, goizeko, 09:00etan, Bilbao Ekintzaren web orrian <http://www.bilbao.eus/BilbaoEkintza/es/> irekita egongo den aplikazioan bidez salbu eta data horretarako deialdi hau ez bada Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu. Kasu horretan, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunean hasiko da, goizeko 09:00etan.



http://www.bilbao.eus/BilbaoEkintza/eu/index_eu.html

Honako honi buruzko informazio guztia:

- **Laguntzen eskabidea**
 - **Eskatutako dokumentazioa**
 - **Ematea eta ordaintzea**
 - **Entitate onuradunen betebeharrak**
-
- **Bilbao Ekintza. Enpresen Sustapena. Enplegua eta Talentua Sustatzeko Arloa**
Tel.: 94 420 53 21 / 94 420 53 22

